

Ebazpena: 91/2023

Espedientea: 18/2021

Vitoria-Gasteiz, 2023ko urriaren 18a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Arabako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, AFA) aurka aurkeztutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita INTRAWAY BUSINESS, SLUren (aurrerantzean, INTRAWAY) zerga-egoitzaren aldaketaz ebaztea, 2019ko martxoaren 12an preskribatu gabeko ekitaldi guztietarako ondorioekin. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 18/2021 espediente-zenbakiarekin.

AURREKARIAK

1.- INTRAWAY 2014ko irailaren 4an eratu zuten Madrilen BUSINESS TERAPIA ASOCIADOS 21 SLk eta TU DECIDIXES SLk (egoitza soziala: Puente Cultural hiribidea 8, A ataria, 2. solairua, 10. bulegoa, San Sebastián de los Reyes – Madril–, eta zerga-egoitza: Ontiyent –Valentzia–. Helburu soziala oso zabala dute, barne hartuta arlootako jarduerak: abeltzaintza, nekazaritza, basogintza, elikadura, fabrikazioa eta merkataritza. Administrazioa RCS jaunak du, zeinaren zerga-egoitza Ontiyent-en (Valentzia) baitu.

2.- 2015eko otsailaren 23an, egoitza soziala Gasteizera aldatu zuen; 2015eko urriaren 16an, Gasteizko Oto hiribidera lekualdatu zen, eta 2019ko azaroaren 18an Arabako Parke Teknologikora (Araba).

3.- INTRAWAY sozietate nagusia da INTRAWAY TALDEAn, eta 2015ean, CEGASA TALDEAren konkurtso-prozesuan, haren jardueraren hiru adar eskuratu zituen, eta mendeko sozietateok eratu:

- CEGASA PORTABLE ENERGY SLU, % 100eko zuzeneko partaidetzarekin. Industria-pilak, *battery pack*ak eta manganesoa fabrikatzea eta merkaturatzea du jardueratzat, eta INTRAWAYk aitortutako egoitza bera du.

- CEGASA UK LIMITED, zeinean % 100eko zeharkako partaidetza baitu, CEGASA PORTABLE ENERGY SLUren bidez.

- CEGASA USA INC, zeinean % 100eko zeharkako partaidetza baitu, CEGASA PORTABLE ENERGY SLUren bidez.

3.- 2017an, hauek dira INTRAWAYren bazkideak: SHERPA CAPITAL II, FCR (Arrisku Kapitaleko Funtsa), kapital sozialaren % 88rekin, eta AURIGA SHERPA I SL, kapitalaren % 12rekin. Bi bazkideek Madrilen dute zerga-egoitza, eta lehenengoarena da ZAEAk INTRAWAYrentzat proposatutakoa.

4.- Administrazio-organoa honako hauek osatzen dute: AGAWAM MANAGEMENT SL, ABT jaunak ordezkaturia; SARAGUELA INVERSIONES SL, ENZ jaunak ordezkaturia; eta FERSO MANAGEMENT SLU, JFM jaunak ordezkaturia.

Hiru sozietateek Madrilen dute zerga-egoitza, eta lehenengo eta hirugarren sozietateen zerga-egoitza bat dator ZAEAk INTRAWAYrentzat proposatutakoarekin. Ordezkariek lurralde erkidean dute zerga-egoitza.

Hauek dira INTRAWAYren ahaldunak: ABT jauna, JFM jauna eta CPS jauna; guztiek Madrilen dute zerga-egoitza.

5.- INTRAWAYk bere sozietate filialentzat egiten duen jarduera honako hau da: filialen kudeaketari laguntza-zerbitzuak ematea, eta harena da, orobat, jarduera gauzatzen duen Oñatiko (Gipuzkoa) higiezinaren titulartasuna eta errentamendua, bai eta filialek ustiatzen dituzten markena ere.

6.- 2019ko martxoaren 1ean, 2019ko martxoaren 12an irakurketa berretsita, ZAEAk INTRAWAYren zerga-egoitza aldatzeko proposamena igorri zion AFARI; hain zuzen, Gasteizko Oto hiribideko 79-81 zenbakietatik Madrilgo Serrano kaleko 21 zenbakiko 3. ezk.ko helbidera, 2019ko martxoaren 12an preskribatu gabeko ekitaldietarako ondorioekin. Proposamenari erantzunik eman ez zitzaien, berriz egin zuten 2019ko abuztuaren 12ko, 2020ko urtarrilaren 10eko eta 2020ko otsailaren 5eko mezu elektronikoen bidez.

7.- 2021eko apirilaren 24an, AFAk ZAEARI jakinarazi zion AFAREN Ikuskaritza Zerbitzuak egindako txostena, zeinak baztertzeko proposatutako helbide-aldaketa; hala ere, espedientean ez dago jasota ez txosten hori, ezta haren jakinarazpenaren baieztapenik ere.

8.- 2021eko apirilaren 26an, ZAEAk gatazka aurkeztu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean, eta prozedura arruntari jarraituz izapidetu da. Hori dela-eta, bete egin da AFAk alegazioak egiteko eta dagozkion frogak eta dokumentazioa hilabeteko epean aurkezteko eta proposatzeko izapidea; horrekin batera,

espedientearen berri eman zaie prozedurako interesdun guztiei. Horren emaitza espedientearen jaso da.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak gatazka ebazteko eskumena dauka, Ekonomia Itunaren 66.Bat.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, berari esleitzen baitio eginkizun hau: «Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

2.- Zerga-egoitza

Ekonomia Itunaren 43.Lau.b) artikulua arabera, honako hauen zerga-egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan dagoela ulertuko da: «Sozietateen gaineko zergaren mendean dauden pertsona juridikoak eta gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute egoitza soziala eta, betiere, egoitza sozial horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza, edo bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada. Irizpide horiek erabilita bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan».

Zerga-egoitzaren kontzeptua izaera faktikoa eta autonomoa duen kontzeptu bat da, eta, horregatik, pertsona juridikoen kasuan, haien egoitza soziala hartzen da aintzakotzat, betiere han baldin badaude zentralizatuta kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza. Horrela ez bada, kudeaketa edo zuzendaritza-lan hori non egiten den hartuko da kontuan. Eta, aurreko irizpideen arabera, zerga-egoitza non dagoen zehaztu ezin denean bakarrik gailentzen da ibilgetuaren baliorik handiena non dagoen.

Hala ere, «zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza» esamolde konplexua da, eta ez dago legez definituta edo mugatuta. Ildo horretan, Ekonomia Itunean ez da zehazten administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza benetan zentralizatuta dauden lekua identifikatzeko araurik; ezta 2003ko abenduaren 17ko 58/2003 Tributuen Lege Orokorrean, Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean eta lurralde erkideko eta foru-lurraldeko sozietateen gaineko zerga arautzen duen araudian ere.

Denen erakusgarri, Auzitegi Gorenaren 2015eko ekainaren 18ko Epaiak (ECLI:ES:TS:2015:2707) adierazten du, indarrean ez egon arren, eta indarrean dagoen araudian *administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza* zehazki zer den azaltzen ez denez, nolabaiteko interpretazio-indarra dutela 2631/82 Errege Dekretuak onetsitako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduaren 22. artikuluan adierazitako irizpideek. Hau da:

- Zuzendaritza-lanak egiteko behar diren administrarien edo kudeatzaileen bizilekua.
- Kontratazio arrunta egiaztatzeko bulegoaren kokapena.
- Eta non eramaten den kontabilitatea eta non gordetzen den sozietate-eragiketak behar bezala egiaztatzeko eta hautemateko behar den dokumentazioa.

3.- Administrazioen jarrera

ZAEAk eta AFak adierazi dute ez daudela ados INTRAWAYren zerga-egoitzari buruz –lurralde erkidean, lehenak, eta foru-lurraldean, bigarrenak–. Horren

oinarrian ez daude hainbeste zuzenbideko gaiak, ezta inguruabar faktikoak berak ere –horiei buruz ez baitute, funtsean, desadostasunik planteatzen–, azken horiei buruz egiten duten balorazioa baizik.

Ondorio horietarako, kontuan hartu behar da Ekonomia Itunaren 43.5 artikulua, zeinak hauxe ezartzen baitu: «Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasiboek (...) bi administrazioei eman behar diete zerga-egoitzaren aldaketen berri, baldin eta zerga-egoitzaren aldaketak zerga hau ordainarazteko eskumenean aldaketaren bat badakar (...)». Ildo horretan, INTRAWAYk, ZAEAk berak onartzen duen bezala, zerga-egoitza deklaratu zuen GH hiribidean. Horregatik, Ekonomia Ituneko 43.5 artikulua transkribatuaren arabera, ZAEAr dagokio zerga-egoitza Madrilen zuela frogatzea, betiere Ekonomia Ituneko 43.4.b) artikuluan jasota dauden irizpideekin bat. Ildo horretan, Arbitraje Batzordearen abenduaren 21eko 17/2017 Ebazpenak (15/2012 gatazkari loturik emandakoa) adierazten du zerga-egoitza zehazteko errolda-aitorpenek egiazkotasun-presuntzioa dutela, eta gaineratzen du bat ez datorrenak nahikoa froga aurkeztu behar dituela presuntzioa suntsitzeko.

Beraz, beharrezkoa da ZAEAk garatutako froga-jarduera zehatza aztertzea, zehazteko ea administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza benetan zentralizatuta dagoen tokia 2009ko urriaren 18az geroztik Madrilgo S kalea dela, 2019ko martxoaren 12an preskribatu gabeko ekitaldietarako, eta beharrezkoa da, orobat, hura balioestea, INTRAWAYren jarduerarekin lotuta frogatuta geratzen diren inguruabar objektibo zehatzak kontuan hartuta.

4.- Arbitraje Batzordearen jarrera

Planteatutako desadostasuna ebazteko funtsezko elementua honako hau da: INTRAWAYk filialentzat egiten duen jarduera; alegia, filialen kudeaketari laguntza-zerbitzuak ematea, eta, horrez gain, jarduera gauzatzen duen Oñatiko

(Gipuzkoa) higiezinaren titulartasuna eta errentamendua, bai eta filialek ustiatzen dituzten markena ere.

Ilido horretan, ZAEAk ikusten duen bezala, INTRAWAYren jarduera teknikoa (filialak kudeatzea) eta INTRAWAYren kudeaketa bera bereizi behar dira. Horren lekuko dira Gasteizen egindako Administrazio Kontseiluaren aktak, zeinetan aztertu diren gaiak filialei buruzkoak baitira, dibidenduak banatzeari buruzkoa baino ez zen salbuespenen bat kenduta.

Gainerakoan, INTRAWAYren Administrazio Kontseilua osatzen duten administratzaile guztiek Madrilen dute zerga-egoitza, baita haren ordezkari gehienek eta ahaldun guztiek ere.

Hiru banku-kontu ireki dituzte lurralde erkidean (2 Madrilen eta 1 Valentzian), eta bakar batean baino ez da ageri Gasteizko zerga-egoitza; halaber, baimendutako esku-hartzaileek ere badute zerga-egoitza lurralde erkidean (4k Madrilen eta 2k Valentzian).

Madrilgo S kalean du zerga-egoitza SHERPA CAPITAL ENTIDAD GESTORA SGEIC SA sozietateak (haren administratzaileak: AGAWAM MANAGEMENT SL, SARAGUELA INVERSIONES SL eta SHERPA DESARROLLOS SL). Sozietate hori SHERPA CAPITAL II (AKF) sozietatearen kudeatzailea eta administratzailea da; INTRAWAYren bazkide nagusia da, eta haren bulegoetan egiten dituzte kudeaketa zein kontabilitatea, eta kudeaketa-lan horretarako langileak ere bertan daude.

6.- Ondorioak

Laburbilduz, ZAEAk aurkeztutako frogak nahikoak dira zerga-egoitza INTRAWAYk aitortutako lekuan kokatzeko *iuris tantum* presuntzioa indargabetzeko. Zerga-egoitza helbide honetan dago: Madrilgo Serrano kalean.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea INTRAWAYren zerga-egoitza Madrilgo S kaleko helbidean dagoela, eta 2019ko martxoaren 12an preskribatu gabeko ekitaldietarako ondorioak dituela.

2.- Erabaki hau jakinaraztea Zerga Administrazioako Estatu Agentziari, Arabako Foru Aldundiari eta INTRAWAY BUSINESS SLU jaunari.